

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3337

176/2024 EBAZPENA, ekainaren 25ekoa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Ana Isabel Prada Perea andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko gainbegirale (Psikiatria) izendatzen den izendapen askez.

Apirilaren 26ko 125/2024 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sarean gainbegirale lanpostu bat (Psikiatria) izendapen askez betetzeko deialdia egin zen.

Batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ondoren eta dagokion izendapen-proposamena eginda, eta Ana Isabel Prada Perea andrearen ezagutza akademiko eta profesionala kontuan hartuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Gainbegirale (Psikiatria) izendatzen da, izendapen askez.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen hirugarren arau erki-dearen 28. artikuluan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ana Isabel Prada Perea andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko gainbegirale (Psikiatria) izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Izendapen askearen prozeduraren bidez lanpostuetarako izendatutako langileak hautazko izaeraz kargutik kendu ahal izango ditu izendapena egin zuen organoak. Lanpostua uzteak edo kargutik kentzeak beste lanpostu funtzional batera lekualdatzea ekarriko du. Nolanahi ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzak mantenduko dira, eta ezaugarri bereko lanpostuari atxikiko zaio, ahal dela izendapena egin aurretik betetzen zuen antolamendu- eta lurralde-eremu berean. Atxikipenak kargua utzi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan ezarritako prozeduraren arabera egingo da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Arabako Osasun Mentaleko Sareari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dazioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 25a.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
MIREN EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE.